

2017KO UZTAILAK 21 / ABUZTUAK 5

# ERRIBERIKO ANTZERKI JAIALDIA



Antolatzailea:

Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra

 FUNDACION  
BALUARTE  
FUNDAZIOA

 cultura  
navarra.es

Laguntzailea:

 AYUNTAMIENTO  
DE OLITE  
ERRIBERIKO  
UDALA

# SARREREN SALMENTA

## SALMENTA ON LINE

**oliteteatrofestival.com**

eta **baluarte.com** webguneen bidez, ekainaren 2tik aurrera.

## SALMENTA TXARTELDEGIAN

### BALUARTEKO TXARTELDEGIA

Ekainaren 2a eta uztailaren 5a artean, **11:00-14:00 eta 17:00-20:00**, astelehenetik larunbatera.

Uztailaren 17a eta abuztuaren 5a artean, **11:00-14:00**, astelehenetik larunbatera.

Igandeetan itxita dago.

Txarteldegiko telefono zenbakia: **948 066 060**

### ERRIBERRIKO TXARTELDEGIA

Uztailaren 18tik aurrera eta jaialdiak irauten duen bitartean, Ardoaren Museoa.

Astelehenetik larunbatera, **10:00-14:00 eta 16:00-19:00**.

Igande eta jaiegunetan, **10:00-14:00**.

\* Horrez gain, Erriberrin emanaldia dagoen egunetan, irekita baita 19:00etatik azken emanaldia hasteko ordua arte.

Informazioa eta sarrerren salmenta:

**oliteteatrofestival.com**



Cultura Gobierno de Navarra



@cultura\_na

Tel. 012 / 948 2170 12

## PREZIOAK

(ON LINE ETA TXARTELDEGIA)

### LA CAVA.

#### OSTIRAL ETA LARUNBATETAN

**15 €** ekainaren 30a arte /

**18 €** uztailaren 1etik aurrera /

**10 €** gazte txartelarekin.

### LA CAVA.

#### IGANDETIK OSTEGUNERA

**12 €** ekainaren 30a arte /

**15 €** uztailaren 1etik aurrera /

**6 €** gazte txartelarekin.

### ARMEN PATIOA

**8 €** ekainaren 30a arte /

**8 €** uztailaren 1etik aurrera /

**5 €** gazte txartelarekin.

## ABONUAK

(ON LINE ETA TXARTELDEGIA)

Uztailaren 15a arte

### LA CAVARAKO ABONU OSOA

(11 antzezlan)

**120 €** ekainaren 30a arte /

**150 €** uztailaren 1etik aurrera /

**60 €** gazte txartelarekin.

## OSTIRALETARAKO ABONUA

(3 antzezlan)

**40 €** ekainaren 30a arte /

**50 €** uztailaren 1etik aurrera /

**25 €** gazte txartelarekin.

## LARUNBATETARAKO ABONUA

(3 antzezlan)

**40 €** ekainaren 30a arte /

**50 €** uztailaren 1etik aurrera /

**25 €** gazte txartelarekin.

## IGANDETIK OSTEGUNERAKO

ABONUA (5 antzezlan)

**50 €** ekainaren 30a arte /

**60 €** uztailaren 1etik aurrera /

**25 €** gazte txartelarekin.

## ARTE DRAMATIKOKO

### GOI ESKOLEN

### TOPAKETA

Salmenta **Centro Cultural**

**Tafalla Kulturgunea** txarteldegian eta webgune honetan:

[https://es.patronbase.com/\\_Tafalla/Productions](https://es.patronbase.com/_Tafalla/Productions)

**5 €**

## OLITE APLIKAZIOA

Jaialdiaren agenda, albisteak eta turismo informazioa OLITE aplikazioan.

*Dohainik behera kargatu iTunesen eta Appstoren.*



## Mugikortasun murriztua duten pertsonak

Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdian, emanaldi bakoitzerako 6 leku daude gordeta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Sarrera horiek erosi nahi dituzten ikus-entzuleek Baluarteko eta Erriberriko txarteldegietan edo 948 066 060 telefono zenbakiaren bidez egin beharko dute (erosketa bakoitzean, gehienez ere, 2 sarrera erosi ahal izango dira). Hartara, Antzerki Klasikoko Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonen. Edonola ere, antolatzaileak saiaturako dira ikus-entzule horiek kokatzen esparruak eskaintzen dituen aukeren barnean.

Hemezortzigarren edizio honetan, **Erriarriko Antzerki Jaialdiak** zuzendaritza artistikoa estreinatuko du **Luis F. Jiménezekin**. Jiménez Parisko On Kixote Jaialditik dator, egungo antzezlaritzako antzerkigile eta zuzendari onenetako batzuek egindako klasikoen berrikuste garaikidean oinarritutako programazio batekin. Uztailearen 21a eta abuztuaren 5a artean, Erriarri antzerkigintzako izen ospetsu handien, esperantza gazteen eta gizarteratzeko antzerkigintzaren elkargune bihurtuko da. Ekitaldi honetan, nafar aktoreek eta nazioarteko ikuskizuneko parte hartuko dute; barnean hartuko dira flamenkoa, poesia eta munduko musikak; eta prestakuntzarako eta ikerketarako aukera egongo da, tailerren eta egoitzen bidez. Funtsean, bost agertoki hauetan garatuko dira jarduerak: Erriarriko Errege Jauregian (La Cavan eta Armen Patioan), Karlos III.aren plazan, Erriarriko kultur etxean eta herriko ikastetxe publikoan.

Programazio berriaren bidez, Erriarriko Antzerki Jaialdiak garrantzi handiko egileen testuen bertsiok hartuko ditu, hala nola, **Shakespeare, Lope de Vega eta Calderón de la Barcarenak**, besteak beste, antzerkigile hauek eguneratuko dituztenak: **Alberto Conejerok**, *Rinconete y Cortadillo*; **Antonio Álamok**, *Fuenteovejuna*; **Alfredo Sanzolek**, *La ternura*; **Companhia do Chapitôk**, *Macbeth*; **Denise Despeyrouxek**, *Iliria*; **José Padillak**, *Medida por Medida*; eta **Carlos Martinek**, *La vida es sueño*. Horrez gain, ikusgai izango

dirén ikuskizunetako zenbaitek emakume batzuegan hartu dute ideia: Joana Eroaregan, **Jesús Carazoren** *Juana, la reina que no quiso reinar* lanak, eta Urrezko Mendeko hainbat emakumerengan, **Rafaela Carrascoren** *Nacida sombra* lanak.

Jaialdiak berrikuntzak izango ditu, hizkuntza eszeniko berriak esploratzera, sorkuntzara eta ikerketara bideratutakoak. Testu poetikoen eta musikaren ziklo bat izango da, Erriarriko zenbait gunetan egingo dena, eta bertan Nafarroako sei talde profesional ariko dira: Acrónica Producciones, La Teatería, Trokolo Teatro, Ion Iraizoz, Nova Lux Artean, eta Itsaso Iribarrenek eta Germán de la Rivak eraturako bikoa. Nafarroako antzerkiaren arloak Erriarri izango duen presentzia osatzeko, beste bi talde—Producciones Maestras, *Cuando el amor habla, el corazón canta* lanarekin, eta In Extremis Teatro *Medida por medida* lanarekin— eta jaialdia egin bitartean egoitza artistikoa egingo duen beste bat izango dira. Orobat, **Antonio Simón** zuzendariarekin egiteko tailer bat antolatuko da, laborategi bat **Denise Despeyrouxekin**, Marivau-xen *La Dispute* lanean oinarrituta, eta Arte Dramatikoko Goi Eskolen Topaketa.

Bidexka desberdinak izango dira betiko klasikoetan ibiltzeko, beste ikusmira batekin, paisaia berrietarako ikuspegi berriekin. Hori da jaialdi honen xede nagusia, eta hori erakusten du XVIII. edizio honetako kartela irudiztatzen duen eta belardi baten erdian kokatuta dagoen besaulkiak. Etorri Erriarriera eta eseri!

**Fernando Pérez Gómez**  
Kulturako zuzendari nagusia

# ABIA GAITEZEN KLASIKOETATIK GURE GARIAZ HITZ EGITEKO

Idazkun hori erreferentzia gisa hartuta, Erriberriko jaialdiko programazioak, 2017ko edizio honetan, ikus-entzuleak entzutera eta beren burua entzutera eramatea nahi dut. Uste dut antzertia, kontatzeko artea ez ezik, entzuteko artea ere badela, eta, garai nahasi eta ziurgabetasunez betetako hauetan, istorio ederrak kontatzea nahi dut, ikus-entzuleen bihotzari eta arimari hitz egiten diotenak. Hitzak, musikak eta aktoreen gorputzek herriko bazter eta zoko guztiak mukururu bete ditzatela, ireki daitezela bertako etxeak eta leihoak, eta García Lorcak esaten duen moduan, Bernarda Albaren ama Maria Josefaren ahotsean, “nik landa nahi dut. Etxeak nahi ditut, baina zabalik... eta pertsonak kanpoan, aulkietan eserita”.

Klasikoen ahotsa beren aulkietan eserita dauden gizon eta emakume horiengana iristeko, egile horiek gure egile garai-kide onenetako batzuei lotu ditut, guri mintzatzeko, oraina konta diezaguten. Eta, hartara, hor dugu Cervantes **Alberto Conejero**rekin *Rinconete y Cortadillo* lanean, Lope de Vega **Laila Ripolle**kin *La judía de Toledo* lanean eta **Antonio Álamo**rekin *Fuenteovejuna* lanean. Azken sorkari hori Pepa Gamboak zuzentzen du, eta Sevillako

El Vacie auzoko emakumeekin egiten da, gizarteratzeko xedea duen lan artistiko bat erakutsiz.

Dramaturgia berrietarako erreferentzia eztabaida ezinezko egile klasiko bat bada, hori William Shakespeare da. **Alfredo Sanzolek** *La Ternura* lanarekin, **Andres Limak** *Sueño* lanarekin eta **Denise Despeyrouxek** *Ilira* lanarekin, inspirazioa aurkituko dute harengan, maitasunaz, heriotzaz, sexuaz, gizakiaren ergeltasunaz, haren bertutez eta doilorkeriaz... hitz egiteko. Azken batean, bizitzaz hitz egiteko, Peter Brookek esaten duen moduan, “antzerkia bizitzaz” jarduten baita. “Bizitza da”.

Beste ekoizpen batzuk egokitzapen berriak dira, Espainiako antzerkigintzan ibilbide luzea duten zuzendarien eskutik etorriko direnak, besteak beste, **Carlos Martín**. Calderón de la Barcaren *La vida es sueño* lana erakutsiko digu, gaztelaniazko antzerkigintzako lan nagusia eta, nire ustez, antzerki klasikoko jaialdi orotan antzeztu behar dena. Aragoitik etorriko da, mugako erkidegoekin lankidetzan aritzeko nahia betetze aldera. Eta **José Padilla** ere etorriko da, esperantza gaztea. *Medida por Medida* ekarriko digu, William Shakespearearena, eta, hartara, Nafarroako **In Extremis Teatro** taldearen egoitza zikloa itxiko da, jaialdiaren aurreko edizioan hasia.

Bi proposamen emakumeaz hitz egiteko, lehenago aipatu den *Fuenteovejuna* lanari gehitzen zaizkionak. Bata *Juana, la reina que no quiso reinar* da, **Jesús Carazorena**, Gaztelako Joanarengan, "Joana eroarengan", memoria kolektiboaren ondare den pertsonaia historiko horrengan, inspirazioa hartu duen testu garaikidea. Eta bestea *Nacida sombra* da, **Rafaela Carrasco** flamenkoko dantzariarena. Bere dantza-aren bidez, Urrezko Mendeko emakume adierazgarriak ekarriko ditu gogora: Santa Teresa Jesusena, María de Zayas, María Calderón, Sor Joana Ines Gurutzekoa. Dramaturgia **Álvaro Tatorena** da, eta ahotsa, **Blanca Portillorena**.

Beste gune batzuetan, La Cavatik kanpo, **Paula Rodríguez** eta **Sandra Arparen** *Rosaura* proposatuko da, Calderón de la Barcaren *La vida es sueño* antzezlaneko pertsonaiarengan ideia hartuta sortua. Haren istorioa kontatuko digute ahozko kontaketa-aren tradizioetik, Bertolt Brechten zentzu epikoarekin. Erriberriko plaza eta zokoetarako, bertako herritar eta bisitari-entzat, irudikatu dut Nafarroako talde profesionalentzat, testu poetikoen ziklo bat, honela izenda daitekeena: **Proiektu eszenikoen proposamen poetikoak**.


Egileen testuak, poeta klasikoek eta herri-tradiziokoak bilatuzetik abiatuta, musika eta kontaketa baliatuta, artisten eta paseatzaileen artean elkarrizketa sortzea, ohikoak ez diren guneetan.

Nazioartera irekitzea Lisboako (Portugal) talde ospetsuenetako baten bidez lortuko dugu, **Companhia do Chapitô**, eta *Macbeth* lanaz egiten duen irakurketa bereziaren bidez. Eta bai Frantziako *Gabacho Maroc* taldearen eta munduko bere musiken bidez ere. Baionatik etorriko da, Akitaniako eskualdearekiko harremanak sustatzeko eta jaialdia Erriberriko plazan amaitzeko.

Horrez guztiaz gain, **tailerra, laborategia eta egoitza** izango dira profesionalentzat, topaketak arte dramatikoko goi eskolekin, eta harrera Nafarroako eta Frantziako programatzaileei, Erriberriko jaialdiaren 2017ko edizio honetako programa osatzeko.

Egile klasikoak eta garaikideak, gizarteratzeko antzerkia, pertsonaia historikoak, flamenkoa, poesia eta munduko musikak izango dira jaialdira publiko berriak erakartzeko tresna artistiko eta estetikoak.

**Luis F. Jiménez**  
Zuzendari artistikoa



## LA CAVA

22:00

UZTAILAK 21 OR.

### LA TERNURA

Alfredo Sanzol

W. Shakespeareren *Ekaitza*  
lanean oinarritua

TEATRO DE LA CIUDAD

Zuzendaria: Alfredo Sanzol

UZTAILAK 22 LR.

### SUEÑO

Andrés Lima

W. Shakespeareren *Uda-gau*  
*bateko ametsa* lanean oinarritua

TEATRO DE LA CIUDAD

Zuzendaria: Andrés Lima

UZTAILAK 23 IG.

### MEDIDA POR MEDIDA

W. Shakespeare

IN EXTREMIS TEATRO

Bertsioa eta zuzendaritza:

José Padilla

UZTAILAK 24 AL.

### MACBETH

W. Shakespeare

COMPANHIA DO CHAPITÓ

Zuzendaria: John Mowat

UZTAILAK 28 OR.

### LA JUDÍA DE TOLEDO

Lope de Vega

CNTC/ MICOMICÓN /

A PRIORI PRODUCCIONES

Bertsioa eta zuzendaritza:

Laila Ripoll

UZTAILAK 29 LR.

### RINCONETE & CORTADILLO

Miguel de Cervantes

COMPANÍA SEXPEARE

Zuzendaria: Salva Bolta

Dramaturgia:

Alberto Conejero

UZTAILAK 30 IG.

### ILIRIA

Denise Despeyroux

W. Shakespeareren *Errege-  
gaua* lanean oinarritua

CÍA. HORIZONTE

DE SUCESOS

Zuzendaria: Juan Ceacero

ABUZTUAK 2 AZ.

### JUANA, LA REINA QUE NO QUISO REINAR

Jesús Carazo

HISTRIÓN TEATRO

Zuzendaria:

Juan Dolores Caballero

ABUZTUAK 3 OG.

### LA VIDA ES SUEÑO

Calderón de la Barca

TEATRO DEL TEMPLE

Zuzendaria: Carlos Martín

ABUZTUAK 4 OR.

### FUENTEOVEJUNA

Lope de Vega

TNT-EL VACIE

Zuzendaria: Pepa Gamboa

Dramaturgia: Antonio Álamo

ABUZTUAK 5 LR.

### NACIDA SOMBRA

Álvaro Tato

CÍA. RAFAELA CARRASCO

Zuzendaritza eta koreografia:

Rafaela Carrasco

## ERREGE JAUREGIA ETA KALEA

UZTAILAK 21 OR. / 20:00

### CUANDO EL AMOR HABLA, EL CORAZÓN CANTA

PRODUCCIONES

MAESTRAS

Zuzendaria: Ana Maestrojuán

UZTAILAK 25 AR. / 22:00

### ROSAURA

TEATRO INVERSO

ABUZTUAK 5 LR. / 24:00

Karlos III.aren plazan.

### GABACHO MAROC

Amaiera ekitaldia. La Cavako  
ikuskitza amaitu eta gero.

ANTZERKI  
POETIKAKO  
PROPOSAMENAK

TESTUAK - MUSIKA - ESPAZIOAK

UZTAILAK 22 ETA 23,  
ABUZTUAK 3 ETA 4 / 20:00

Errege Jauregia.  
Arkuen Aretoa

MARCELA,  
LA VOZ DE LA  
MUJER LIBRE

LA CAJA TEATRO  
Sortzaileak: **Ion Iraizoz**  
eta **Mikele Urroz**

UZTAILAK 22, 23, 24 / 20:30  
UZTAILAK 24 / 20:00

Errege Jauregia.  
Masustondoaren Patioa

EL GUARDA-  
INFANTE,  
ENTREMÉS CANTADO

NOVA LUX ARTEAN  
Zuzendaritza artistikoa:  
**Cristina Fernández**  
Musika-zuzendaritza:  
**David Gálvez**

UZTAILAK 22, 23, 28 ETA 29  
/ 20:30

Kalea

FABULANTES

TROKOLO TEATRO  
Zuzendaria: **Ramón Marco**

UZTAILAK 24, 25, 29 ETA 30  
/ 21:00

Errege Jauregia.  
Masustondoaren Patioa

EL CANTAR  
DE DULCINEA

LA TEATRERÍA  
Zuzendaritza: **Virginia**  
**Moriones, Iñigo Casali**  
y **Sergio Barcellona**

UZTAILAK 24 ETA 28 / 23:30  
UZTAILAK 25 / 23:00  
UZTAILAK 30 / 23:40

Kalea

SEGISMUNDO,  
PRIMER ACTO

ACRÓNICA PRODUCCIONES  
Egilea: **Mikel Bernués**

ABUZTUAK 1, 2, 3 ETA 4 / 21:00

Errege Jauregia.  
Erregearen Aretoa

EL AMOR

**Teresa Ávilakoaren** olerkietan  
oinarritutako pieza

Egileak: **Itsaso Iribarren**  
y **Germán de la Riva**

ARTE  
DRAMATIKOKO  
GOI ESKOLEN  
TOPAKETA

Centro Cultural Tafalla  
Kulturgunea  
TAFALLA / 20:30

UZTAILAK 25 AR.

EL VERDUGO

NAFARROAKO ANTZERKI  
ESKOLA - NAE  
**Luis García Berlangaren** lanaren  
*bertsioa*

Zuzendaria: **Ramón Vidal**

UZTAILAK 26 AZ.

LOS BANCOS RE-  
GALAN  
SANDWICHERAS  
Y CHORIZOS

INSTITUT DEL TEATRE  
DE BARCELONA  
Sorkari kolektiboa  
Zuzendaritza eta  
dramaturgia: **Silvia Ferrando**

JUE 27 JULIO

EL REGRESO  
DE AGONY  
EL MUSICAL

RESAD

**Stephen Kingen** *Misery*  
eleberrian libreki oinarritutakoa

Zuzendaria: **Paz Pérez**

BESTE  
JARDUERAK  
BATZUK

AKTOREENTZAKO  
TAILERRA

**Antonio Simónek**

Erriberriko kultur etxean,  
uztailaren 24a eta 28a  
artean.

LABORATEGIA

**Denise Despeyrouxekin**

Erriberriko kultur etxean  
egingo da, uztailaren 31 eta  
abuztuaren 4a artean.

EGOITZA - LABORATEGIA

**Hoidek Producciones**

Jaialdia irauten duen  
bitartean.



LA CAVAKO  
AGERTOKIA

# LA TERNURA

Alfredo Sanzol

W. Shakespeareren *Ekaitza* lanean oinarritua

TEATRO DE LA CIUDAD

Zuzendaria: Alfredo Sanzol



**UZTAILAK 21 OR. / LA CAVA / 22:00**

*La Ternura* lanak erregina baten eta haren bi alaba printzesen istorioa kontatzen du. Erregina pitin bat magoa da, eta hirurak Itsas Armada Garaiezinarekin bidaiatzen ari dira, Felipe II.ak intereseko ezkontzeta-  
ra behartu baititu printzesak, aitoren seme ingelesekin, behin arrakastaz inbaditu denean Ingalaterra. Esmeralda erreginak, ordea, gizonak gorroto ditu, beti baldintzatu izan diotelako bizimodua eta askatasuna kendu diotelako. Eta, horrenbestez, ez du nahi alabek patu hori bera izatea. Hutsik dagoela uste duen uharte baten

ondotik igarotzen denean Armada, erreginak ekaitza eragingo du eta itsasontzia hondoratuko da. Uharte horretan gelditu nahi du bizitzen alabekin, gizonik ez ikusteko sekula gehiago. Arazoa da uharte horretan duela hogeitertietik egurgile bat bizi dela, bi semeekin, eta haiek hara joan zirela emakumerik ez ikusteko inoiz gehiago. Erregina eta alabak ohartzen direnean ez daudela bakarrik, gizon arropak jantziko dituzte babesteko. Eta orduan hasiko dira abenturak, katramilak, maitemintzeak eta nahasmenduak.

**ANTZEZLEAK**

Paco Déniz, Elena González, Natalia Hernández, Javier Lara, Juan Antonio Lumbreras, Eva Trancón

**TALDE ARTISTIKOA**

**Gune eszenikoa eta jantziak:** Alejandro Andújar / **Argiak:** Pedro Yagüe / **Musika:** Fernando Velázquez / **Zuzendaritzako laguntzailea:** Beatriz Jaén / **Eszenografiako eta jantziteriako laguntzailea:** Almudena Bautista / **Ekoizpen exekutiboa:** Jair Souza-Ferreira / **Ekoizpeneko laguntzaileak:** Elisa Fernández, Sara Brogueras / **Ekoizpenaren zuzendaritza:** Miguel Cuerdo / **Komunikazioa:** El Norte Comunicación / **Argazkiak:** Luis Castilla / María Artiaga

*Teatro de la Ciudad eta Teatro de La Abadía*ren ekoizpena da *La Ternura*

**Informazio gehiago:** [www.teatrodela ciudad.es](http://www.teatrodela ciudad.es)

**Iraupena:** 120'

## UZTAILAK 22 LR. / LA CAVA / 22:00

*Sueño* tragedia pertsonal baten abiaburua da, pertsona baten aitaren heriotza, eta bizitzeko eta maitatzeko nahia... Eta haren eromena... *Sueño*k istorio dibertigarria erakusten du eta, era berean, krudela, emozioen bidaia bat, beren burua arriskutan jartzen duten interpretatzaile batzuen ariketa malabaristikoaren bidez forma hartzen duena. *Sueño* gizon baten istorioa da, heriotzara hurbiltzen doan neurrian, orduan eta bizitzeko eta maitatzeko gogo handiagoa duena. Heriotza inguruan duela, zaharrak edan egiten du... Eta edanak iraganera joaten laguntzen dio; edaten duen bakoitzean gogora ekartzen ditu maite guztiak, lehenetik azkenekora. Eta maite horiek oroitzean gaztetu egiten da. Edana amaitzen denean, ordea, zaharra

errealitatera itzultzen da, eta gero eta ordain handiagoa eskatzen dio. "Hori egiten die alkoholak pertsoneri... Eta heriotzaren ikuspegia ikus-entzuleekin osatzen doa", adierazi du Limak. Era berean, aitortu du *Sueño* eszenaratzan gehien kostatzen ari zaion aktore lana dela. Ikuskizuneko protagonistek maitatu, barre, negar, dantza, edan egiten dute, dibertitu egiten dira... Eta dena suharki egiten dute. Zuzendariak behin eta berriz esaten duenez, bizitza honetan umore sena eduki behar da, une onetan eta txarretan. *Sueño* komedia bat da, azken batean, tragedia bat duena, eta, kontraesan horretan, maitatua ez izatearen tragedian, Limaren bizitzan eta Shakespeareren komedietako gertakizun ezagunenetan ideia hartutako pertsonaia batzuk sortzen dira.

### ANTZEZLEAK

Chema Adeva, Laura Galán, Nathalie Poza, Ainhoa Santamaría, María Vázquez

### TALDE ARTISTIKOA

**Gune eszenikoa eta jantziak:** Beatriz San Juan / **Argiak:** Valentín Álvarez / **Musika:** Jaime Manresa / **Soinuaren diseinua:** Enrique Mingo / **Zuzendaritzako laguntzailea:** Laura Ortega / **Eszenografiako eta jantziteriako laguntzailea:** Almudena Bautista / **Ekoizpen exekutiboa:** Joseba Gil / **Ekoizpeneko laguntzailea:** Gonzalo Bernal / **Argiteriako laguntzailea:** Lua Quiroga Paul / **Zuzendaritzako laguntzailea:** Elena de Lucas / **Komunikazioa:** El Norte Comunicación / **Argazkiak:** Luis Castilla / María Artiaga

*Teatro de la Ciudad eta Teatro de La Abadía*ren ekoizpena da *Sueño*

**Informazio gehiago:** [www.teatrodelaciudad.es](http://www.teatrodelaciudad.es)

**Iraupena:** 90'

# SUEÑO

Andrés Lima

W. Shakespeareren *Uda-gau bateko ametsa* lanean oinarritua

TEATRO DE LA CIUDAD  
Zuzendaria: Andrés Lima



# MEDIDA POR MEDIDA

W. Shakespeare

IN EXTREMIS TEATRO

Bertsioa eta zuzendaritza: José Padilla



## UZTAILAK 23 IG. / LA CAVA / 22:00

Vienan egongo gara. Dukea da hiriaren arduraduna, baina joan egingo da eta bosterea Angelori emango dio, erabiltzen ez diren lege zorrotzak martxan jar ditzan.

Claudio izango da lege horien gogortasuna pairatzen lehena: Julieta haurdun utzi du eta bi egun barru lepoa moztuko diote. Isabel arreba da, mojavai eder bat,

legea aldaraz dezakeen bakarra, birjintasuna galduta Angeloren nahia betetzeko.

Gobernu ustela, hiri itogarria, burdelak, justizia, Jainkoa, sexua eta heriotza dira In Extremis taldeak eta José Padillak proposatutako gaietako batzuk, William Shakespeareren *Measure for Measure* lanaren bertsio honetan.

## ANTZEZLEAK

Txori García Uriz, Leire Ruiz, Iratxe García Uriz, Juan Sansegundo, Oier Zuñiga

## TALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaritzako laguntzailea:** Ana Maestrojuan / **Gune eszenikoa eta argiak:** Koldo Tainta / **Soinuen espazioa:** Gorka Pastor / **Ekoizpen exekutiboa:** Ángel García / **Banaketa:** Dos Hermanas Catorce

*Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren (inaem), Gayarre antzokiaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza du.*

**Informazio gehiago:** [www.doshermanascatorce.es/distribucion/medida-por-medida/](http://www.doshermanascatorce.es/distribucion/medida-por-medida/)

**Iraupena:** 90'

## UZTAILAK 24 AL. / LA CAVA / 22:00

Shakespeareren tragedia bat aurkeztuko dugu, *kiltaz* jantzitako hiru antzezlek (des)egokitu. Euskarri eszenografikoa emateko —oraingoan, aulkia baino zerbait gehiago egongo da— kea sortzeko tresna bat, sukaldeko aiztoak eta oina duten hiru mikrofono izango dituzte. Kea sortzeko tresnak Eskoziako lainoa ekarriko du gogora, eta gainerako guztia altzariak, gaitak, zaldiak, lantzak, ezpatak, urkamendiak, basoak, tronuak eta, azken batean, lan honek behar duen eszenografia guztia izango dira. Britainia Handiko nobleen leinuen arteko gerren kontakizunetan oinarritua, egilearen pieza odoltsuenetako bat da (protagonista guztien artean bakarrik bik

iraungo dute bizirik), eta giza handinahikeriaren irudikapen zorrigaiztokoan artean, nagusia.

Laurogei minutuan eta Companhia do Chapitô taldearen estilo nahastezinean, ikus-entzuleek gozatu eta barre egingo dute tragedia honekin, erabateko barre-argara oinarri hartuta kontatuta. Ez al dira klasikoak egiten dramaturgia eta testuaren mezua errespetatzen eta handitzen duten janzki eta gorbatekin? Portugaldar atsegin eta maitagarri hauek gauza berbera egingo dute, barrez lehertzeko umore senetik. Eta portugesez, ingelesez edo gaztelaniaz.

### ANTZEZLEAK

Jorge Cruz, Duarte Grilo, Tiago Viegas

### TALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaritzako laguntzailea:** José Carlos García / **Kiltak:** Glória Mendes / **Ekoizpen-zuzendaria:** Tânia Melo Rodrigues / **Argien teknikaria:** David Gonçalo Florentino / **Banaketa eta kontratatzea:** César Arias "Marmore"

12 urtetik gorakoentzat

**Informazio gehiago:** [www.cesararias.es](http://www.cesararias.es)

**Iraupena:** 80'

# MACBETH

W. Shakespeare

COMPANHIA DO CHAPITÔ

Bertsioa eta zuzendaritza: John Mowat



# LA JUDÍA DE TOLEDO

Lope de Vega

CNTC - MICOMICÓN - A PRIORI

Bertsioa eta zuzendaritza: Laila Ripoll



## UZTAILAK 28 OR. / LA CAVA / 22:00

*La Judía de Toledo* testu konplexua da, ikuskizuna konplexua izatea nahi dugun moduan, bizitzen ari garen unea konplexua den moduan, inguruan dugun egoera konplexua den moduan.

*La Judía de Toledo* drama politiko bat da, eta bertan, egun ikus ditzakegun jarrera askotan ezagut dezakegun moduan jokaten duten botere-gizonek. Eta hori interesgarria zaigu. Eta kezkatzen gaitu.

Testu honek galdera asko ditu bere baitan, ikuslea antzezlanetik joaten denean airean gelditzea gustatuko litzaizkigukeenak.

Testu guztiz eder honetan irakurketa konplexuz, une txundigarritz, ezin ederrago direlako une liluragarritz, kezkarritz betetako ikuskizuna dago.

Lope bete-betean. Lope onena. Maite dugun Lope, agertokietan beti toki bat eskatzen duena.

### ANTZEZLEAK

Manuel Agredano, Federico Aguado, Elisabet Altube, Teresa Espejo, Marcos León, Mariano Llorente, Jorge Varandela, Ana Varela

### TALDE ARTISTIKOA

**Esenografia:** Arturo Martín Burgos / **Esenografiako laguntzailea:** Antonio Verdú / **Jantziak:** Almudena Rodríguez Huertas / **Jantziteriako laguntzailea:** Liza Bassi / **Argiak:** Luis Perdiguero (A.A.I.) / **Argiteriako laguntzailea:** Marta Martí / **Bideoeszena:** Álvaro Luna / **Bideoeszenako laguntzailea:** Elvira Ruiz Zurita / **Jatorrizko musika eta soinuaren espazioa:** Mariano Marín / **Ekoizpen exekutiboa:** Joseba García (A Priori) / **Ekoizpeneko laguntzailea:** Angélica Felipe / **Prentsa:** María Díaz / **Zuzendaritzako laguntzailea:** Ismael Carreño / **Zuzendaritzako laguntzailea:** Héctor del Saz

12 urtetik gorakoentzat. INAEMen laguntza du

**Informazio gehiago:** [www.apriorigt.com](http://www.apriorigt.com)

**Iraupena:** 90'

## UZTAILAK 29 LR. / LA CAVA / 22:00

*"Eta idazlan luzeagoa eskatzen duten gorabeherak gertatu zitzaizkien"* idatzi zuen Cervantesek, *Rinconete y Cortadillo* lanaren azken lerroetako batean...

Amaiera ireki, misteriotsu eta probokatzailerik hori antzezlanaren abiaburua izango da. Zer gertatu zitzaion Rinconeteri eta Cortadillori eredu nobelatxo horren arrakastaren ondotik? Antzezlan honetan, benetako Pedro del Rincónnek eta Diego Cortadok kontuak garbitu nahi dituzte Cervantesekin, beren bizitzetako gertaera labur bat argitara emateagatik beren ezkutuan, baina betiko kondenatu zituena

bihurri eta maltzur irudiari erantzutera. Gaztaroko arrakasta hartatik ezin izan ziren inoiz askatu. Gizena eta Mehea bezala, edo Pecos musikariak bezala, Rinconete eta Cortadillo elkarrekin jarraitzea kondenatuta egongo dira bizirik irauteko. Dena den, beharbada, oraingoan beren izena garbitzeko aukera iritsi zaie.

Pikareskari, haur mirariei, adiskidetasunari, errealitatearen eta fikzioaren arteko borrokari eta, batez ere, Cervantesek modernotasunari atea zabaltzeko erabili zituen pariei buruzko komedia da *Rinconete y Cortadillo*.

### ANTZEZLEAK

Santiago Molero, Rulo Pardo

### TALDE ARTISTIKOA

**Musika konposizioa:** Mariano Marín / **Jantziak:** Tatiana de Sarabia / **Gune eszenikoaren diseinua:** Salva Bolta / **Eszenografia:** Sfumato / **Argiak:** Marino Zabaleta / **Zuzendaritzako laguntzailea eta kudeatzailea:** José Carrillo / **Taldea:** Sexpeare / **Ekoizpena:** Producciones Sexpeare, S.L. / **Ekoizpen exekutiboa:** Jorge Palomar / **Banaketa:** Amadeo Vañó - Cámara Blanca

**Informazio gehiago:** [www.sexpeare.es](http://www.sexpeare.es)

**Iraupena:** 85'

# RINCONETE & CORTADILLO

Miguel de Cervantes

COMPAÑÍA SEXPEARE

Dramaturgia: Alberto Conejero

Zuzendaria: Salva Bolta



# ILIRIA

Denise Despeyroux

W. Shakespeareren *Errege-gaua* lanean oinarritua

COMPAÑÍA HORIZONTE DE SUCESOS

Zuzendaria: Juan Ceacero



## UZTAILAK 30 IG. / LA CAVA / 22:00

*Iliria* harremanen sare sozial bat da, eta bertan, profil birtualak bat datoz Shakes-pearek *Errege-gaua* lanean sortu zituen pertsonaiekin. Sare horren bidez, Anibalek, Orsinoren profilaren pean jardungo duen gazte enpresaburuak, Candela ezagutuko du, sareko magazin bateko erredaktore arrakastatsua, eta zoramenaz maiteminduko da hartaz. Oliviak, Candelak *Ilirian* baliatzen duen profilak, gizonekiko distantziari eusten dio 'benetako' munduan

eta ezezkoa emango dio Anibali. Obsesioa gainditzeko, Anibalek aholkulari baten laguntza eskatuko du. Pertsonaia gaztea eta misteriotsua da Zesar, benetan ez denaren itxurak egiten dituena. Harreman bitxia hasiko du berarekin. Hortik aurrera, antzezlanean bizi diren pertsonaien bizitzak katramilatu egingo dira 'benetako munduan' eta birtualean, beren nahiei, kontraesanei eta beren buruei aurre eginez.

### ANTZEZLEAK

Huichi Chiu, Fernando Delgado, María García-Alfí, Beatriz Grimaldos, Jorge Mayor, Vanesa Rasero, Néstor Roldán

### TALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaritzako laguntzailea:** Ivana Heredia / **Jantziak eta eszenografia:** Paola de Diego / **Ikus-entzunezkoak:** Alejo Serra / **Argiak:** Jorge Colomer / **Soinuen espazioa:** Michael Stubblefield / **Diseinu grafikoa:** Celinda Ojeda, Lucía Santa / **Argazkiak:** Raúl Bartolomé

**Informazio gehiago:** [www.iliria.es](http://www.iliria.es)

**Iraupena:** 100'

## ABUZTUAK 2 AZ. / LA CAVA / 22:00

Gema Matarranzek ahotsa eta gorputza jarririk dio Gaztelako Joana I.ari, Joana eroa esaten ziotenari. Bere patuaren gatibu, poliki-poliki hiltzen utzita arbuiatu zuten guztiak baino gehiago bizi izan zen. Joana arretaz arakutzen ariko da oroitzapenaren eta etsipenaren artean, estatu baten premiengatik bortxaz ezarritako bizimodu bat ulertzen saiatzeko. Gurasoak, seme-

alabak eta senarra presente egongo dira eszenan, eromenaren bidean herrestan daraman amets mingarri batean.

Joanaren begietatik jaiotako begirada, jauregiko azpijokoen eta handinahakerien lekukoa eta biktima, ez hiltzeko arrazoi moduan maitatzeko eskubidea aldarrikatuko duena.

## ANTZEZLEAK

Gema Matarranz (Joana) eta Enrique Torres (lekaidea)

## TALDE ARTISTIKOA

**Jatorrizko testua:** Jesús Carazo / **Jantziak:** Mai Canto / **Jatorrizko musika:** I. Almendral / **Eszenografia:** Álvaro Gómez Candela / **Argiak:** Juan Felipe Tomatierra / **Argazkiak:** Pablo Mabe

**Informazio gehiago:** [www.histrionteatro.es](http://www.histrionteatro.es)

**Iraupena:** 55'

# JUANA, LA REINA QUE NO QUISO REINAR

Jesús Carazo

HISTRIÓN TEATRO

Zuzendaria: J. D. Caballero



# LA VIDA ES SUEÑO

Calderón de la Barca

TEATRO DEL TEMPLE

Zuzendaria: Carlos Martín



**ABUZTUAK 3 OG. / LA CAVA / 22:00**

Basiliok, Poloniako erregeak, uste du Segismundo semea despotikoa eta ankerra izango dela eta erregetza kenduko diola, eta horregatik bakartuta dagoen dorre batean giltzaperatzea erabakiko du. Han Clotaldok, Basilioaren zerbitzari leialak eta prestuak, kirtenduta eta kateatuta haziko du mutila. Rosaura, Clotaldoren alaba, gizon mozorroa jantzita iritsiko da gortera, Clarín morroiak lagunduta. Oker jokatu duela pentsatuta, Basiliok estualdian jarri nahi du Segismundo: lo dagoela jauregira eramango du eta printze bihurtuta esnatuko da. Segismundok, ordea, harrokeriaz, basakeriaz eta ankerkeriaz jokatu du, eta, horrenbestez, Basiliok erabakiko du

berriro ere giltzatzea. Esnatzen denean, Segismundo ziur dago gortean bizi izandako guztia irudipena baino ez dela, bizitza osoa den moduan. Azkenean, printze oinordekoari leial zaizkion mendeko batzuk askatzera sartuko dira, eta, nahiz eta hasiera batean mendekua hartzea erabakiko duen, gero onginahizkoa izango da erregearekin eta gainerako kortesanoekin. Aitari barkatu egingo dio, Rosaurari eta Clotaldori lagundu egingo die Astolfoaren kontrako ohore laidoan, eta Estrella andregaitzat hartuko du. Denek miretsiko dute Segismundo, bere asmatenari esker, eta errege egingo dute.

**ANTZEZLEAK**

José Luis Esteban, Yesuf Bazaá, Félix Martín, Minerva Arbués, Encarni Corrales, Alfonso Palomares, Francisco Fraguas

**TALDE ARTISTIKOA**

**Dramaturgia:** Alfonso Plou, José Luis Esteban, Carlos Martín / **ekoizpen exekutiboa:** María López Insausti / **Musika-konposizioa:** Gonzalo Alonso / **Bertsoen aholkularia:** José Luis Esteban / **Eszenografia:** Tomás Ruata / **Eszenografia-laguntzailea:** Mario Martín / **Argiak:** Tatoño Perales / **Jantziak:** Ana Sanagustín / **Ezauzarritzea:** Langas Estilistas / **Argazkiak:** Marcos Cebrián / **ekoizpen-taldea:** Pilar Mayor, Alba Moliner

*Hezkuntza eta Kultura Ministerioa, Aragoiko Gobernu*

**Informazio gehiago:** [www.teatrodeltemple.com](http://www.teatrodeltemple.com)

**Iraupena:** 100'

## ABUZTUAK 4 OR. / LA CAVA / 22:00

*Fuente Ovejuna* (1619) antzezlaritza barrokoko lan bat da, Lope de Vegarena, non herria justiziarik ezaren eta botere-gehiegikerien kontra altxatzen den. Menéndez Pelayo literatur-kritikariaren arabera, "ez dago lan demokratikoagorik gaztelaniazko antzezlaritza osoan". 1476an, Fuente Ovejuna izeneko Andaluziako herrixka bateko herritarrak, jauntxoaren gehiegikeriak jasateaz nazkatutik, aho batez matxinatu ziren bere aurka. Matxinadan hilketa bat gertatu zen, baina ikertzaileak erantzun bakarra jaso zuen herritarrengandik: «Fuente Ovejuna egin zuen». Jokaera miresgarri horren aurrean, iker-tzen jarraitzeari uko egin zioten, herriaren mendekua bidezkotzat jota. Mende eta

erdi geroago Lopek gertakari ospetsu hori birsortu eta hilezkortu zuen, irakurlea emozionalki liluratzen duen tentsioa eta indar dramatikoaren duen lan batean. Reinaldo Froldik, Loperen lanetan espezialista ospetsuenetako batek, edizio honetan, gertakariak garatu ziren garaiaren eta lana idatzi zen garaiaren testuinguru historikoa eta ideologikoa argitzen du, eta Fuente Ovejunaaren doitzea Lopek komediari buruz zuen teoriara aztertzen du. Loperen literatur arteak eta bere hizkuntza poetiko bikainak espazioaren eta denboraren mugak gaingidutuko dituzte, betiereko idealak azaltzean, komediari oihartzun unibertsala ematen diotenak.

### ANTZEZLEAK

Rocío Montero Maya, Lole del Campo Díaz, Carina Rámirez Montero, Sandra Rámirez Montero, Ana Jiménez / Pilar Ramírez, Rocío Rivasflores, Beatriz Ortega Chamorro, David Montero

### TALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaritzako laguntzailea:** Joaquín Galán / **Aholkularitza artistikoa:** Pedro G. Romero / **Gune eszenikoaren diseinua:** Antonio Marín / **Jantziak:** Maite Álvarez / **Argiak:** Alejandro Conesa / **Soinua:** Emilio Morales / **Koordinazio tekniko:** Alejandro Conesa / **Kudeatzaileak:** Joaquín Galán / **Argazkiak:** Félix Vázquez

**Informazio gehiago:** [www.atalaya-tnt.com](http://www.atalaya-tnt.com)

**Iraupena:** 55'

# FUENTE OVEJUNA

Lope de Vega

TNT/ATALAYA-EL VACIE

Zuzendaria: Pepa Gamboa

Dramaturgia: Antonio Álamo



# NACIDA SOMBRA

**Álvaro Tato**

Ikuskizun flamenkoa

COMPAÑÍA RAFAELA CARRASCO

Zuzendaritza eta koreografia:

**Rafaela Carrasco**



**ABUZTUAK 5 LR. / LA CAVA / 22:00**

*Nacida sombra* topaketa bat da, dantza flamenkoaren eta Espainiako Urrezko Mendeko emakume sortzaile handien artekoa. Flamenkoak femenino pluralean dantzatuko ditu XVI. eta XVII. mendeetako egile emakume klasikoek testuak. Irudizko lau gutunek, garai eta toki desberdinetan idatzitakoek, lau emakume artistaren ahotzen arteko elkarrizketa harilkatuko dute: Santa Teresa Jesusena, María de Zayas, María Calderón eta Sor Joana Ines Gurutzekoa. Dantzaren, musikaren eta hitzaren bidez, beren bizipenak, kezkak, sorkariak eta sekretuak erakutsiko dizki-

gute, batzen dituzten loturak oinarritzeko: bakardadea ausardiaren prezio moduan, maitasunaren labirintoak eta askatasunaren bilaketa mingarria. Santa Teresa Jesusenaren agonia mistikoa komentuko bere gelan; María de Zayas eleberrigilearen jauregiko intrigak, Gorteko aretoetan; María Calderón aktore entzutetsuaren argi-itzalak komedia-antzoki bateko agertokian; eta Sor Joana Ines Gurutzekoaren amets-irudiak eta polemikak bere lorategi jorian. Ilargiaren lau fase, lau espazio, lau emakume: lau mundu dantzatzeko, pentsatzeko, sentitzeko eta bizitzeko.

**ANTZEZLEAK**

Rafaela Carrasco - Florencia O' Ryan / Carmen Angulo - Paula Comitre

**MUSIKARIAK**

**Gitarrak:** Jesús Torres - Juan Antonio Suárez "Cano" / **Flamenkoko kantariak:** Antonio Campos - Miguel Ortega

**TALDE ARTISTIKOA**

**Zuzendaritza eta koreografia:** Rafaela Carrasco / **Jatorrizko ideia eta dramaturgia:** Álvaro Tato / **Off ahotza (gutunak):** Blanca Portillo / **Musika-konposizioa:** Antonio Campos, Jesús Torres, Pablo Suárez / **Eszenografiaren diseinua:** Carolina González / **Jantzien diseinua:** Belén de la Quintana / **Argien diseinua:** Gloria Montesinos / **Soinuen espazioaren diseinua:** Gabriel Araujo

**Informazio gehiago:** [www.rafaelacarrasco.com](http://www.rafaelacarrasco.com)

**Iraupena:** 80'



ERREGE  
JAUREGIA  
ETA KALEA

# CUANDO EL AMOR HABLA, EL CORAZÓN CANTA

PRODUCCIONES  
MAESTRAS

Zuzendaria:  
Ana Maestrojuán



UZTAILAK 21 OR. / ARMEN PATIOA / 20:00

Amor gure aurrean aurkeztuko da gauza bat erakusteko: bera ez da gaitz guztien errudun. Tirso, Calderón edo Quevedoren hitzen bidez, erakutsiko digu gu geu garelako gure ekintzen arduradun. Baina Amor ez da bakarrik egongo. Musikak elkarrizketa beroa abiatuko du berarekin, konplizea eta laguna izango du. Raquel Andueza &

La Galanía taldearen ahotsak eta tresnek bere atsekabeak gurekin konpartitzen lagunduko diote Amorrri. *Cuando el amor habla, el corazón canta* drama eta antzerki ikuskizuna da, eta bertan poesiak eta musika barrokoak elkarri eskua emango diote, maitasunez, sentiberatasunez eta umorez beteriko muntaketa sortzeko.

## ANTZEZLEAK

Raquel Andueza (sopranoa), Ángel García Moneo (aktorea)

## TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza artistikoa: Ana Maestrojuán / Teorba: Jesús Fernández Baena /  
Gitarra barrokoa: Pierre Pitzl / Argazkiak: César Cebrián

Informazio gehiago: [www.produccionesmaestras.com](http://www.produccionesmaestras.com)

Iraupena: 65'

# ROSAURA

TEATRO INVERSO



UZTAILAK 25 AR. / ARMEN PATIOA / 22:00

*"... tronuaaren aretoan sartu zen. Gela izoztuta zegoen. Areto bikain hori hilobi ireki bat zen orain, profanatu, eta hobian gorpu bat borrokan ari zen, berpizteko".*

Calderón de la Barcaren *La vida es sueño* lanean ideia hartuta sortutako antzerki pieza da Rosaura. Hain zuzen, Espainiako Urrezko Mendeko testu klasikoak gure garaia hurbila zaion ikuspegi baten bidez esploratzeko nahitik sortu da lan hau. Calderónen lan gorena erreferentziatzat hartuta, Rosaura pertsonaiaren ikuspuntutik kontatuko dugu bertan gertatzen dena. Historian aldaketa eragiteko motor moduan ikusten dugu pertsonaia hori; izan ere, bere patuari aurre egingo baitio,

ezarrita dagoen ordenaren eta bortxaz ezartzen zaizkion mugen aurka. Hartara, heroi hori interpretatuko dugu, egungo testuinguru politikoan oihartzuna duen ikuspegi poetiko baten pean; bertan, herritarra huts egindako sistema bateko tragediaren protagonista bihurtuko da, bere etorkizunaren alde borrokatzera behartzen duena. Horretarako, *storytelling* delakoa baliatuko dugu (istorioen kontaketa). Milaka urteko tradizio hau, gizakiak berak adinako jatorri antzinakoak dituen antzerki-tresna boteretsua da. Era berean, antzerkian dauden eta izan diren hizkuntza, kultura eta tradizio desberdinen batua eta komunikazio elementua da.

## ANTZEZLEAK

Paula Rodríguez, Sandra Arpa

## TALDE ARTISTIKOA

**Eszenografia, jantziak eta koreografia:** Paula Rodríguez, Sandra Arpa (Teatro Inverso) / **Argien diseinua:** Iván Martín / **Soinuen diseinua:** Rob Hart / **Bertsoen aholkularia:** Nuria Alkorta / **Ekoizpena:** Teatro Inverso / **Aholkularitza:** Nuria Alkorta, Stephie Harrop / **Aholkularitza:** XperTeatro

*Hauen laguntzarekin: Corral de comedias de Alcalá de Henares, INAEM, AISGE, Madrid Activa eta Sala Mínima*  
**Informazio gehiago:** [teatroinverso.wixsite.com/proyectorosaura](http://teatroinverso.wixsite.com/proyectorosaura)  
**Iraupena:** 65'

## GABACHO MAROC



### ABUZTUAK 5 LR. / KARLOS III.AREN PLAZA

**Amaiera ekitaldia.** La Cavako ikuskizuna amaitu eta gero

Lau urteko ibilbide bizian, Gabacho taldekoek 100 jaialdi baino gehiago egin dituzte Europan, Afrikan, Hego Amerikan eta Asian, eta 2015ean African Awards sarietarako izendapena eskuratu zuten.

Mendebaldeko musikariek eta Afrikaren iparraldeko musikari tradizionalak osatuta, Gabacho Maroc taldeak eztanda bat eskaintzen du zuzenean, Marokoko erritmo

eta doinuen benetako jaia, jazza, *gnaoua*, Afrikako erritmo eta doinuak, arabiarrak... Estiloak eta mugak gainditzen ditu.

Disko berria, *Tawassol*, aurkeztera etorriko da Erriberrira. 2018aren hasieran kalera-tuko du, eta Marokori eta Afrika Beltzarekin duen loturari egindako omenaldia izango da.

### TALDE ARTISTIKOA

**Ahotsa, *guembri*-a:** Hamid Moumen / **Ahotsa, lautea, perkusioa:** Aziz Fayet / **Saxofoi tenorra, koraak:** Illyes Ferfera / **Saxofoi altua, koraak:** Charley Rose / **Teklatuak:** Pierre Cherbero / **Afrikako perkusioa, *n'goni*-a, koraak:** Frédéric Faure / **Baxu elektrikoa:** Eric Oxandaburu / **Bateria:** Vincent Thomas

ANTZERKI  
POETIKAKO  
PROPOSA-  
MENAK

TESTUAK - MUSIKA - ESPAZIOAK

## MARCELA, LA VOZ DE LA MUJER LIBRE



LA CAJA TEATRO

Sortzaileak: **Ion Iraizoz eta Mikele Urroz**

**UZTAILAK 22 ETA 23,  
ABUZTUAK 3 ETA 4 / 20:00**

**Errege Jauregia. Arkuen Aretoa**

Antezlan hau *Kixote* lanaren XII., XIII. eta XIV. kapituluetan oinarrituta dago. Gertakizuna *Grisostomoren* ehorzketan kokatuko da, eta bertara lagun eta jakin-nahi ugari joango dira; haien artean, Anbrosio, On Kixote eta Santxo Panza. Hiru horiek, emanaldira joango diren ikus-entzuleak bezala, ehorzketako gonbidatuak eta

Martzela esatera etorri denaren luxuzko ikusleak izango dira. Proposatutako pieza *Grisostomoren Abestiak* hasiko du, bere buruaz beste egin aurretik idatziko duen olerki etsiak, eta ehorzketara joan diren gizonen aurrean Martzelak egingo duen alegatuak amaituko du.

### **ANTZEZLEAK**

Ion Iraizoz eta Mikele Urroz

**Informazio gehiago:** [www.ionirraizoz.com](http://www.ionirraizoz.com)

**Iraupena:** 20'



## EL GUARDAINFANTE, ENTREMÉS CANTADO

NOVA LUX ARTEAN

Zuzendaritza artistikoa: **Cristina Fernández**

Musika-zuzendaritza: **David Gálvez**

**UZTAILAK 22, 23, 24 / 20:30**

**UZTAILAK 24 / 20:00**

**Errege Jauregia. Masustondoaren Patioa**

Benaventeren *entremés* edo interludioen artean, generoko maisulantzat jo daitezkeen batzuk nabarmendu behar dira, bai beren literatur eta poesia kalitatearengatik, bai beren egitura, komikotasun eta gizartearen ikuspegi satirikoarengatik, erraz ekartzen dena gure garaira. *El Guardainfante (1. zatia)* bikaintasun horren

adibide argia da. Baina, gainera, Juan Ranarentzat emanaldi oldarkorrenetako bat planteatzen du, duen misoginia agerikoarengatik. Pixka bat geroago, Benaventerek *El Guardainfante (2. zatia)* idatzi zuen. Lehen zatiaren ispilua da eta bertan poloak erabat alderantzikatuta daude, profotfeminismoaren adibide bihurtuta.

### ANTZEZLEAK

David Etxeverría, Ariadna Martínez eta Iñaki Esparza.

### TALDE ARTISTIKOA

**Gitarra:** Jesús Martínez / **Perkusioa:** Salvador Tarazona / **Eszenografia:** Raúl Garbayo /

**Makillajea eta jantziak:** María Almudéver

**Informazio gehiago:** [www.novaluxartean.com](http://www.novaluxartean.com)

**Iraupena:** 20'

# FABULANTES



TROKOLO TEATRO

Zuzendaria: **Ramón Marco**

**UZTAILAK 22, 23,  
28 ETA 29 / 20:30**

**Kalea**

Félix María Serafín Sánchez de Samaniego Zabala izena duela esaten duen pertsonaia bat, antzinako jantzi dotore bat daramala, gurdi bati tiraka doan zerbitzari batekin dabil. Gurdi horretan, berak hitz neurtuz idatzitako zenbait alegia deklamatzeko eta antzezteko behar diren lanabesak daramatzate. Zerbitzaria ardu-

ratuko da kontaktari musika jartzeaz, dela tronpetarekin, dela gitarra espainolarekin, eta bai alegia bakoitza girotzeko behar diren soinu efektuak egiteaz ere, zaldien apatxen soinuak, ardien zintzarriak, txorien txioak, mendiko airea, otsoaren ulua, nekazarien kantak. Lan hau Samaniegoren alegietan ideia hartuta sortuta dago.

**ANTZEZLEAK**

Ramón Marco eta Sergio de Andrés

**Informazio gehiago:** [www.trokoloteatro.com](http://www.trokoloteatro.com)

*Iraupena: 20'*



## EL CANTAR DE DULCINEA

LA TEATRERÍA

Zuzendaritza: Virginia Moriones, Íñigo Casalí eta Sergio Barcellona

**UZTAILAK 24, 25,  
29 ETA 30 /21:00**

**Errege Jauregia. Masustondoaren Patioa**

Aldonza Lorenzok, Tobosoko Dulcinea esaten diotenak, On Kixote kaparearen maitasun gutun bat jaso berri du. Gutunak, ordea, nahasi egin du, sentimen ugari mugitu da bere barnean eta Dulcinea errealtateari aurre egitera behartuta dago. Dama eder-galantak ilargian aurkituko du pozbidea, hari adieraziko dio lantua, zen-

bait olerki errezzitatuta. Errezitatu eta gero, olerkiak kanta bihurtuko dira. Cervantesen testuetatik eta testu izengabeetatik, eta Berpizkunde espainoleko musikatik abiatuta eginda, Espainiako Urrezko Mendeko pertsonaia ezagunenaren musaren isiltasun aldarrikatuari egindako omenaldia da lan hau.

### TALDE ARTISTIKOIA

**Errezitatzea:** Virginia Moriones / **Berpizkundeko flautak, kantua:** Íñigo Casalí / **Arkuko bihuela, eskuko bihuela:** Sergio Barcellona

*Iraupena: 20'*



# SEGISMUNDO, PRIMER ACTO

ACRÓNICA PRODUCCIONES

Egilea: **Mikel Bernués**

**UZTAILAK 24 ETA 28 / 23:30**

**UZTAILAK 25 / 23:00 UZTAILAK 30 / 23:40**

**Kalea**

Zer gertatuko litzateke Segismundo Nafarroako herriren batean agertuko balitz XXI. mendean? Testu klasiko batetik, *La vida es sueño* lanaren lehen ekitalditik, abiatuta egindako ikuskizun adeitsua, arina eta dibertigarria izan nahi duen proposamena da. Calderón de la Barcaren lan hori gaztelaniazko dramaturgiaren eta antzezla-

ritzaren pieza gorentzat hartu izan da, eta bereziki Segismundo pertsonaia nagusiaren hasierako bakarrizketa. Segismundok, haitzulo ilun batean itxita, bere patua deitoratuko du, "¡Ay, misero de mí!" (Ai, zorigaiztokoa ni!) klasikoa esanda. Zerbait bitxiak bakarrizketa etengo du, ordea. Ez da Clotaldo, ez eta Rosaura ere. Ez da Clarín. Han dabilen guardia zibil bat da.

## **ANTZETZLEAK**

Txori García eta Elena Irureta

## **TALDE ARTISTIKOA**

**Ekoizpen exekutiboa:** David Bernués / **Ekoizpena:** Lola Carrera / **Argien eta ikus-entzunezkoen diseinua:** Acrónica Producciones / **Jantziak:** Beruta

**Informazio gehiago:** [www.acronicaproducciones.com](http://www.acronicaproducciones.com)

**Iraupena:** 20'

# EL AMOR



**Teresa Ávilakoaren** olerkietan oinarritutako pieza

Egileak: **Itsaso Iribarren eta Germán de la Riva**

**ABUZTUAK 1, 2,  
3 ETA 4 / 21:00**

**Errege Jauregia. Erregearen Aretoa**

Ikus-entzuleak Ávilako Teresaren literatur mundura hurbilduko dira, poesiaren, bere lanekin lotutako soinuen eta musikaren, eta koreografiaren bidez. Hori guztia pieza eszeniko hibrido baten formatuan, literatura, soinua eta dantza garaikidea konbinatzen dituena. Ávilako Teresaren historia, oroitzapena eta mundua gogora ekarriko diren denbora eta espazio batean

murgilduko dira ikus-entzuleak, agertoki paregabe batean: Errege Jauregia eta Erriberri herria.

Ikus-entzuleek entzungailu harigabeak edukiko dituzte, errezitatutako olerkien, giroko soinuen eta lotutako musikaren bidez esperientzia intimoa bizitzeko aukera emateko.

## **ANTZEZLEAK**

Itsaso Iribarren eta Germán de la Riva

## **TALDE ARTISTIKOA**

Soinuen diseinua eta argiak: 13DIAS / Argazkiak: 800Fotografía

Informazio gehiago: [www.iribarrendelariva.com](http://www.iribarrendelariva.com)

*Iraupena: 20'*

ARTE  
DRAMATIKOKO  
GOI ESKOLEN  
TOPAKETA

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

# EL VERDUGO



NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA - NAE

**Luis García Berlangaren** lanaren bertsioa

Zuzendaria: **Ramón Vidal**

Egileak: **Rafael Azcona eta Luis García Berlanga, Ennio Flaianoren** lankidetzarekin

**UZTAILAK 25 AR. / 20:30**

**Centro Cultural Tafalla Kulturgunea**

Jose Luis ehorztetxe bateko langilea da eta bere ametsak bete nahi ditu: Alemaniara joan eta mekanikari on bihurtzea. Karmen ezagutuko du, ordea, borrero profesional baten alaba. Harremanak izaten hasiko dira eta Karmen haurdun geldituko da. Gertaerek ezkontzera behartuko dituzte. Ehorztetxeko soldata ez da nahikoa elkarrekin bizitzeko. Amadeo, borreroa,

erretiroa hartzeko zorian dago eta Jose Luis konbentzitzen saiatuko da berak hutsik utziko duen lanpostua eskatzeko, etxebizitza bat izateko eskubidea ere izango bailuke. Jose Luisek ez du nahi, baina azkenean aitagarrebaren proposamena onartuko du, ziur egonda inoiz ez duela bete beharko borrero lanbidea. Ez da hala izango, ordea.

## ANTZEZLEAK


Pello Flamarique, Estibaliz Guardado, Iñigo Izurzu, Mikel Martínez, María Sánchez

## TALDE ARTISTIKOA

**Eszenografia:** Atornapión / **Argiak:** Luz y Fer / **Jantziak:** María Sagüés (Irantzu, Aines, Leire, Olatz, Zulma, Sonia eta Cristinaren laguntzarekin, Donostiako AEG eskola profesionaleko Jantziteriako 2. mailako ikasleak) / **Ekoizpena:** ENTNAE

*Iraupena:* 60'

# LOS BANCOS REGALAN SANDWICHERAS Y CHORIZOS



INSTITUT DEL TEATRE DE BARCELONA

Sorkari kolektiboa

Zuzendaritza eta dramaturgia: **Silvia Ferrando**

**UZTAILAK 26 AZ. / 20:30**

**Centro Cultural Tafalla Kulturgunea**

Eraikinetan bizi gara, herrialdeetan, familietan, oroitzapenetan bizi garen moduan. Beste batzuek eraiki duten arkitekturak baldintzatu egiten gaitu, itxuratzen eta desitxuratzen. Zenbait eraikinek bizitzen uzten dute, sartzera eta bertan bizitzera bultzatzen dute, hartu eta bihotz ematen dute, zure historiaren zati eta zu harenaren zati bihurtzen zara. Beste batzuek, berriz, kanporatu egiten zaituzte, bota egiten

zaituzte, bertako zoruetan eta paretetan irrist egiten duzu, inoiz batere aldatzera iritsi gabe. Arkitektura garaikidea, askotan, basatia da. Zorionez, badira elkarrekin egotea, gizakion komunikazioaren berotasuna, sustatzen duten eraikinak eta tokiak. Beste batzuk, aldiz, bunkerra edo nitxo mordoa bezalakoak dira, ezkutatzeko edo bakarrik egoteko konpartimenduak. Bunker bihurtutako mamu eraikinak.

## **EGILEAK**

Silvia Ferrando, El Conde de Torrefiel, Federico García Lorca, Jean Anouilh, Séneca eta Angélica Lidell

## **ANTZEZLEAK**

Francesc Cuéllar, Alejandro Curiel, Marta Díez, Carme González, Carolina Manero, Gemma Polo eta Glòria Ribera

**ekoizpena:** Institut del Teatre de Barcelona

**Iraupena:** 60'

# EL REGRESO DE AGONY

EL MUSICAL



REAL ESCUELA SUPERIOR DE ARTE DRAMÁTICO – RESAD

**Stephen Kingen** *Misery* eleberrian libreki oinarritutakoa

Zuzendaria: **Paz Pérez**

**UZTAILAK 27 OG. / 20:30**

**Centro Cultural Tafalla Kulturgunea**

Chris Cooper musikalen musikagile eta antzerkigile ospetsua da. Bere lan ezagunenak, Agonyren sagak, publikoa txoratu eta arrakasta itzela edukitzea lortu du. Gaztea izan arren, Chrisek zaleen samalda nekazina lortu du, bere hurrengo lanaren zain daudenak ikusminez. Zorigaiztoko gertaera batek, ordea, Chrisen patua etengo du: auto istripua izan du eta hankak sentimenik gabe gelditu zaizkio. Julie

Miller bere zale handienak aurkitu egin du eta heriotzatik askatu du. Chrisentzat salbazioa dena Julierentzat amets handiena izango da: bere idoloa logelan edukitzea. Chrisen erreskatea dirudiena bere amesgaizto handiena izango da azkenean.

Jatorrizko musikala, Stephen Kingen *Misery* eleberrian libreki oinarritutakoa.

## ANTZEZLEAK

Chris Cooper, Julio Armesto, Julie Miller, Cristina García

## TALDE ARTISTIKOA

**Musika:** Pablo Cediel / **Hitzak:** Celia Morán / **Esenografia eta argiak:** Antonio Barrera / **Ekoi zpena:** Madrilgo Real Escuela Superior de Arte Dramático

*Iraupena:* 60'

BESTE  
JARDUERAK  
BATZUK



## AKTOREENTZAKO TAILERRA

### Antonio Simónekin

Erriberriko kultur etxean, uztailaren 24a eta 28a artean. Antonio Simón antzerki zuzendariaren metodologian oinarrituko da –25 urtean baino gehiagoan Bartzelonako Institut del Teatren praktika pedagogikoan arituta garatu duen metodologia– eta bai hogeita hamar eszenarizetan baino gehiagotan aktoreak zuzentzen hartutako eskarmentuan ere.

## LABORATEGIA

### Denise Despeyrouxekin

Erriberriko kultur etxean egingo da, uztailaren 31 eta abuztuaren 4a artean. Denise Despeyrouxek gidatuko du, eta Marivau-xen *La Dispute* komedian oinarrituko da. Laborategia ideia honetatik abiatuko da: antzerkiaren profesionalak ez du ezer balioetsuagoa bere berezitasun emozionala baino. Hori dela-eta, emozioak esploratuko dira, aktoreei beren erregistroa handitzen eta berezitasun horri ahalik eta etekin handiena ateratzen laguntzen dien tresna den heinean.

## EGOITZA - LABORATEGIA

Nafarroako Hoidek Producciones taldeak egoitza artistikoa egingo du Erriberriko Antzerki Jaialdiak irauten duen bitartean, Erriberriko ikastetxe publikoko erabilera askotako aretoan. Susana Gutiérrezen zuzendaritzapean, Hoidek Producciones taldeak antzezlan bat muntatzeko oinarriak jarriko ditu; zehazki, *Kixote* laneko Martzela artzainaren pasartearen berrirakurketa moderno baten gainean eraikiko du, xx. mendearen esparru historikora egokituta.

Bigarren urtez jarraian, Erriberriko lane-rako egoitza bat eskainiko dio Nafarroako antzerki talde bati, ikerketarako laborategi gisa planteatuta, proiektu artistiko bat garatzeko. Foru Komunitateko arlo profesionalari sostengua emateko ekimen honen bidez, Jaialdiak erakustearen esparrua gainditu nahi du, hartara, sorkuntza bultzatzeko eta jardun eszenikoaren inguruan begirada berriak lantzea sustatzeko.

**ERRIBERIKO**  
ANTZERKI  
JAIALDIA

2017KO UZTAILAK 21 / ABUZTUAK 5



